



## LASARTE-ORIAKO UDALAREN ARAUDI ORGANIKOA.

### 40. artikulua.- Udal-talde politikoaren funtzionamendurako baliabideak.

1.- Udalak udal-talde politiko bakoitzari bulegoak edo lokalak esleituko dizkie, modu independentean elkartzeko eta herritarren bisitak jasotzeko, baita beren funtzionamendurako beharrezkoa duten materiala ere, lortutako ordezkariaren eta proportzionaltasunaren irizpideei jarraiki.

Banaketa hori aho batez erabakiko da agintaldiko lehen Bozeramaileen Batzordean; ez bada akordiorik lortzen, Alkatetzak erabakiko du.

2.- Halaber, udal-talde politiko bakoitzari funtzionamendu-gastuetarako diru-zenbateko bat esleitu ahal izango dio urtero. Talde bakoitzeko zenbateko finko bat banatuko da, eta beste zenbateko bat taldea osatzen duen zinegotzi kopuruaren arabera. Zenbateko hori udal-aurrekontuetan izendatuko da, eta urteko onespenerekin batera berrikusiko da, baina ezingo da inola ere erabili Udalbatzaren zerbitzuan lan egiten duen edozein eratako langileren ordainsariak ordaintzeko edo ondare izaerako aktibo finko gisa eratu daitezkeen ondasunak eskuratzeko.

Talde politikoek aurreko paragrafoak aipatzen duen diru-esleipenaren kontularitza berezi bat eraman beharko dute, eta Udalbatzarraren esku jarriko dute, hark eskatzen duen guztietan.

*Talde politikoek aurreko paragrafoak aipatzen duen diru-esleipenaren kontularitza berezi bat eraman beharko dute, eta Udalbatzarraren esku jarriko dute urtean behin. Udaleko talde politiko bakoitzak Udaleko idazkariari entregatuko dio urte bateko ekainaren eta hurrengo urteko maiatzaren artean izandako diru-sarrerari eta gastuei buruzko informazioa (data hori aldatu ahal da baldin eta udaleko talde politikoek aho batez hala erabakitzen badute). Emandako datuak udalaren webgunean argitaratuko dira.*



3.- Udal-talde politikoek eskubidea dute Udalak beren esku zenbait lokal jar ditzan, herritarrekin edo herri-erakundeekin bilerak egin ahal izateko.

Lokalen bat behar duten udal-talde politikoek eskabide idatzi bat aurkeztuko dute beren bozeramailearen bitartez. Alkateak beharrezko jarraibideak emango ditu eskatzaileak lokala eduki dezan. Lokala erabiltzerik ez baldin badago, eskatutako egunean eta orduan beste erabilera batzuetarako xedatua dagoelako, beste egun baterako eskainiko da, eskatzaileari interesatzen zaionaren arabera eta hirugarrengoen kaltetan izan gabe.

Horrelako bilerak ezin daitezke Udalbatzarraren bilkurekin batera egokitu. Lokalak erabiltzeko baimena eman ondoren, bilera horren egunarekin egokitzen den batzar-bilkura baterako deialdia egiten bada, baliogabetuta geratuko da baimen hori, eta beraz, bilera hori egiteko eguna atzeratuta geratuko da.

4.- Udal-talde politikoek Udalaren bulegoetan banatu ahal izango dute informazio idatzia, baita Udaletxean horretarako xedatuta dauden iragarkitauletan zintzilikatu ere.